

Hegazti-gripearen beste kasu bat baieztatu da Euskadin jasotako hegazti basati batengan

Herritarren laguntzari esker Donostian aurkitutako zanga gaixo bat da. Foku berri hori maitzean Gipuzkoan sai arreengan jakinarazitako beste biei gehitu behar zaie.

Patogenotasun handiko hegazti-gripearen (PHHG) beste kasu bat detektatu da partikular batek hegazti gaixo bat zegoela jakinarazi ondoren Gipuzkoako Foru Aldundiko basozainek jaso duten zanga gaixo batengan. Zanga euskal kostaldean ohikoa ez den itsas hegaztia da; izan ere, ez dago ugaltze-koloniarik, eta normalean ez da gure kostaldera iristen, baldin eta ez badago gaixorik edo ahulduta.

Gaixotasun horren [Erreferentziatzko Laborategi Nazionalak](#) baieztatu egin du **H5N1** azpimotako patogenotasun handiko hegazti-gripearen (PHHG) birusaren positiboa. Ondoren, hegazti-sektoreari jakinarazi zaio, **etxeko hegaztiak babes ditzan** hegazti basatiekin kontaktuan egotetik, kutsatzea saihesteko.

Europar bizitzen ari garen gaixotasun horren epidemiaren ondorioz (oraingoz larriena), hegaztien migrazio-garaia hasi zenetik, urte osoan zehar egiten den zaintzari esker aurkitu dute kasu hori. 2022ko uztailaren 28ra bitartean, PHHGren 5.349 kasu jakinarazi dira Europako 36 herrialdetan, nagusiki H5N1 anduiarenak: 2.348 kasu eskortako hegaztietan, 2.903 hegazti basatietan eta 98 itxian hazitako hegaztietan.

Hegazti-gripe gaixotasun birikoa da, hegaztiei baino eragiten ez diena, eta oso kutsakorra da hegazti-espezieen artean: infektatutako hegaztietan heriotza-tasa handia eragiten du, bai eta galera ekonomiko larriak ere hegazti-sektorean. **Hegazti-produktuak (haragia, arrautzak, gibel oreka edo hegaztiz egindako edozein elikagai) kontsumitzea ez da arriskutsua pertsonentzat.**

Jarraian, Euskadin 2021-2022 denboraldian basa-hegaztiei buruz deklaraturako lehen fokuen albisteak kontsulta daitezke; eta mikrositean IARI buruzko informazio gehiago dago eskuragarri:

Albaitaritzako sendagaiei buruzko araudi berria

Indarrean sartu da 2019/6(EB) Erregelamendua, albaitaritzako sendagaien erabilerari buruzko araudi berria ezartzen duena.

Arau hori duela hiru urte onartu zen, baina urtarrilaren 28tik da aplikagarria, eta garrantzitsua da helburuak lortzeko bi mailatan: «Osasun bakarra» Europako Ekintza Plana eta «Baserritik mahaira» estrategia.

Araudiak neurri zehatz ugari aurreikusten ditu [antimikrobianoen aurkako erresistentziaren \(AME\) kontra borrokatzeko](#) eta animalietan antimikrobianoen erabilera zuhurra eta arduratsua sustatzeko, besteak beste:

- Antibiotikoen prebentziozko erabilera debekatzea animalia taldeetan.
- Animalietan antimikrobianoen erabilera metafilatiktikoa murriztea.
- Hazkundera sustatu eta errendimendua areagotzeko antimikrobianoak erabiltzeko debekua indartzea (baita pentsuetan hazkunderaren sustatzaile gisa antibiotikoak erabiltzeko 2006ko debekua ere).
- Zenbait antimikrobiano soilik gizakientzat gordetzeko aukera.
- Estatu kideek animalietan antimikrobianoen salmentari eta erabilerari buruzko datuak jasotzeko betebeharra.

Helburu nagusia da herritar guztiak irabazle izatea legedia berri horrekin, batez ere antimikrobianoen aurkako erresistentziaren kontra borrokatzeko neurriei esker; izan ere, horiek giza osasunarekin, abereen osasunarekin eta ingurumenarekin duten harremana agerikoa da.

Eskortako hegaztien haragian Campylobacter bakterioak kontrolatzeko gida

Estatu Batuetako Nekazaritza Saileko (USDA) Elikadura Ikuskaritza eta Segurtasun Zerbitzuak (FSIS) hegazti-establezimendu txikiei bi lan garrantzitsutan laguntzeko gida bat argitaratu du, Campylobacter bakterioekin lotutako arriskuak murrizteko:

1. Hil aurreko eta ondorengo esku-hartzeak identifikatzea eta ezartzea, AAKPK sistemaren zati gisa.
2. Laborategiko laginen emaitzak erabiltzea ezarritako sistemaren egokitasuna ebaluatzeko.

Gida honetako informazioa eskortako hegaztiak hiltzeko eta prozesatzeko establezimenduei zuzenduta dago, kontrol-puntu kritikoen kudeaketa errazteko.

Gidan deskribatutako eredia proposamen bat da, eta egokitu egin beharko da ustiategi bakoitzera, edo, bestela, antzeko eraginkortasuna duen beste eredu bat ezarri beharko da.

Mihi urdinaren gaitzetik babesteko neurri espezifiko berriak

[MAPAk joan den abenduaren 21ean argitaratu zuen PA/1251/2020 Agindu berria](#), zeinaren bidez mihi urdinaren gaitzetik babesteko neurri espezifiko berriak ezartzen dituen.

Aintzat hartuta Euskal Autonomia Erkidegoan, Aragoi eta Nafarroan 8 serotipoaren zirkulazioa detektatu ondorengo egoera epidemiologiko berria eta horren ondorioz ezarritako kontrol-neurriak, MAPAk honako ezarri du agindu berri honetan:

- 1, 4, eta 8 serotipoen aurrean, eremu mugatuak eta eremu horietan derrigorrezko txertaketa ezartzea: **8 serotipoaren aurrean, eremu mugatu berria eta derrigorrezko txertaketa ezartzea Euskal Autonomia Erkidegoan, Aragoi eta Nafarroan.**
- Borondatezko txertaketa ezarriko da **arisku handikotzat** jotzen diren gaixotasunik gabeko eremuetan. Eremu horiek aldatu egin ahalko dira kokapen geografikoaren, faktore ekologiko eta meteorologikoen, eta **bektorearen presentziaren eta banaketaren arabera.**
- 2021eko martxoaren 31ra arteko aldi baterako epea, mugaketa-eremu berrietan animaliak mugitzeko, immunizaziorako behar adina denbora emate aldera.
- Txertaketa albaitari baimenduek egingo dute, eta agintari eskudunek kontrolak ezarriko dituzte, kanpaina behar bezala gauzatzen dela ziurtatzeko.

Esne gordina zuzenean saltzeko eskakizun berriak

Duela gutxi argitaratu da 1086/2020 Errege Dekretua, zeinaren bidez EBko elikagaien higie-nearekin lotutako hainbat xedapenen aplikazioa arautu eta malgutzen den; eta horrek elikadura-produktuen ekoizpen eta merkaturatzeari eragiten dio, besteak beste esne gordinari. ED horrek sektorearen eskari historiko bati erantzuten dio.

853/2004 Erregelamenduak (EE) higie-ne-arau espezifikoak ezartzen ditu animalia-jatorriko elikagaientzat, eta esne gordina merkaturatzea ahalbidetzen du, gizakion kontsumo zuzenerako. Hala ere, zehaztu egiten du estatu kideek gizakion kontsumo zuzenerako esne gordinaren merkaturatzea arautu, debekatu edo mugatu dezaketela, arau espezifikoaren bidez.

Errege Dekretu hori 640/2006 EDaren berrikusketa bat da, eta haren bidez lortu da estatu-mailan higie-ne-paketea modu harmonizatuan aplikatzea. Era berean, hari esker, elikagaien establezimendu txikiek, ekoizpen txikia daukatenek edo produktu tradizionalak prestatzen dituztenek higie-ne-araudietako helburuak errazago erdietsi ahalko dituzte.

Esne gordina saltzea: baldintzak

Errege Dekretu honek ahalbidetzen du kontsumitzaileei edo txikizkako merkataritzako establezimenduei esne gordina zuzenean saltzea, **betiere berme higieniko-sanitario guztiak**

beteta. Salmenta ustiategian bertan edo aldizkako edo aldi baterako azoketan gauzatu ahalko da; **muga bakarra izango da ezingo dela inola ere jatorritik 100 km-tik gorako distantziara saldu.**

Txikizkako merkataritzako establezimenduek, produktuak prestatzeko esne gordina erabili ahal izateko, **egosi egin beharko dute aurretik.** Aitzitik, kolektibo zaugarriei (ospitaleak, zahar-egoitzak, ikastetxeak...) elikagaiak zerbitzatzen dizkieten jatetxe-establezimenduek **ezingo dute esne gordina erabili.**

Hala ere, arriskuaren ebaluazioari dagokionez, [EFSA](#)k 2015ean eta [AESAN](#)ek 2020an argitaratutako txosten zientifikoek agerian jartzen dute **esne gordina kontsumitzeak arriskua dakarrela kontsumitzaileen osasunarentzat, eta beharrezkoa dela zenbait.**

[Animalien ongizateari buruzko araudiaren ebaluazioa baserriko animalien artean \(Fitness Check\)](#)

Europako Parlamentuak eta Kontseiluak eskatuta, [Europako Batzordeak](#) animalien ongizateari buruzko legeria berri bat egiteko beharra eta legeria berri horrek izango lukeen inpaktua aztertzeko ebaluazio bat egin du. Legeria horrek barne hartu beharko ditu jarduera ekonomiko baten testuinguruan sartzen diren animalia guztiak (baserriko animaliak), animalien ongizateari buruzko etiketentzako araudi-esparrua eta garraioan zehar animaliak babesteari buruzko arauen berrikuspena.

Animalien ongizatea funtsezkoa da [Baserritik Mahaira estrategia](#)ren helburuak betetzeko beharrezkoa den animalia-ekoizpen jasangarria lortzeko. Estrategia horren jasangarritasun-helburuak eta Europako Itun Berdean ezarritakoak kontuan hartuta, Batzordearen asmoa da egungo araudia ebaluatzea ([Fitness Check](#)), animalien ongizaterako benetako beharrianak zein diren eta herritarrek zer espero duten aztertuz. Horretarako, ebidentzia zientifiko berria hartuko du aintzat, eta irizpide hauek erabiliko: eraginkortasun orokorra, efizientzia, garrantzia, balio erantsia eta koherentzia.

Fitness Check-aren bidez ebaluatuko da, besteak beste, ea egungo araudiak animalia-ekoizpen jasangarrirako beharrezkoak diren animalien ongizate-maila altuak lortzeko arau multzo integral bat eskaintzen duen, ea EBko beste ekintza eta politika batzuekiko koherentea den, eta ea EBko ekoizleei laguntzen dien mundu-mailako merkatuan lehiakorrak izaten.

Horrez gain, zenbait kontsulta-jarduera egingo dira, Fitness Check-ari buruzko iritziak eta horri egin ahal zaizkion ekarpenak biltzeko. Jarduera horien artean, kontsulta egingo zaie herritarrei eta animalien ongizatearekin lotura duten alde interesdun guztiei, hala nola eskumeneko agintariei, elikadura-segurtasuneko agentziei, ikertzaile eta aditu independenteei, elikagaien hornidura-kateko enpresa-erakunde eta erakunde profesionalei eta animalien ongizatean aktiboki esku hartzen duen beste edozein erakunderi.

Ebaluazioa egin ondoren, [DGSANTE](#)k txosten bat argitaratuko du. Bertan, egin diren ekarpen

guztiak bilduko ditu. Horrez gain, animalien ongizateari buruzko esparru-araudi bat proposatuko du (2020. urtearen amaierarako egitea aurreikusten da).

Antibiotikoekiko Erresistentziaren aurkako Plan berria

Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioak 2019-2021 aldirako Antibiotikoekiko Erresistentziaren aurkako Plan Nazional (PRAN) berria argitaratu du. Plan horrek jarraipena emango dio 2014-2018 aldiko PRAN planari.

Antibiotikoekiko erresistentzia **mundu-mailako arazoa da**, eta gizakien nahiz animalien osasunari eragiten dio, baita ingurumenari, merkataritzari eta, ondorioz, ekonomia orokorrari ere.

Antibiotikoekiko erresistentziaren aurkako **Espainiako lehen estrategia aplikatzeari esker**, hau lortu da **giza osasunaren arloan**:

1. Antibiotikoen **kontsumoa zaintzeko sistema hobetzea.**
2. Osasun Laguntzarekin Erlazionatutako **Infekzioak Zaintzeko Sistema Nazionala (IRAS) onartzea.**
3. Datu nazionalen **monitorizazioa hobetzea.**

Eta hau **animalien osasunaren arloan**:

- Albaitaritzaren erabilerako **antibiotikoen salmentei buruzko datuak biltzeko sistema nazionala hobetzea.**
- Albaitaritzako antibiotikoen **erabilerari buruzko datuak biltzeko sistema nazional bat ezartzea.**
- **REDUCE programa abian jartzea** abeltzaintzako zenbait sektoretan (txerrien sektorean, kolistinaren kontsumoa % 97,18 murriztea lortu da).

Horretarako, **PRAN berriak neurri estrategiko** hauek biltzen ditu:

- Antibiotikoen kontsumoa eta horiekiko erresistentzia **zaintzea.**
- Antibiotikoekiko erresistentzia **kontrolatzea.**
- Antibiotikoen **premiari** aurrea hartzea.
- Erresistentzien fenomenoak **ikertzea.**
- Gaiaren **trebatzea.**

- Biztanleria jakinaren gainean egotea eta **sentsibilizatzea**.

Bestetik, Espainiako **lehen JIACRA txostena** egin da. Bertan, lehen aldiz bildu dira antibiotikoen kontsumoari eta antibiotikoekiko erresistentziari buruzko datuak, **giza osasunari zein animalien osasunari dagozkienak**.

Hauek dira lehen txosten horretan bildutako **ondorio aipagarrienak**:

- Espainian giza osasunarekin lotuta kontsumitzen diren antibiotikoen gutzizko kopurua nahiko konstantea izan da azken hiru urteetan; dena den, **ospitaleen esparruan, antibiotikoen kontsumoak % 10 egin du gora 2012. urtetik**.
- Espainiako **albaitaritzako antibiotikoen kontsumoak % 14 egin du behera**, gutxi gorabehera (2014-2016 aldian).
- Pertsona eta animalietako ***Salmonella enteritidis***aren andui isolatuetan, **kinolonekiko erresistentzien portzentajea nahiko handia izan da** (% 50etik gorakoa).
- Populazio-multzo batek (pertsonak edo animaliak) antibiotikoekiko dituen erresistentziak gutxitzeko modurik onena da antibiotikoen kontsumoa murriztea populazio-multzo horretan bertan. Dena den, neurri txikiagoan bada ere, **albaitaritzan antibiotiko gutxiago erabiltzea onuragarria da pertsonetako bakterio isolatuen erresistentzia-portzentajeak murrizteko**.

Aplikagarria baldintza higienikoen malgutasuna okindegi eta barazki-sektoreetan

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak eta Osasun Sailak EHAAn argitaratu berri dituzte Euskadiko bolumen txikiko ustiatzei egokitutako irizpide higieniko eta sanitarioak ofizialki ezartzen dituzten aginduak; zehazki, okindegi eta barazki ekoitzi eta merkaturatzen dituzten ustiatzei dagozkienak:

AGINDUA, 2019ko otsailaren 5ekoa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena eta Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez [jatorri begetaleko produktuen sektoreko establezimenduetako baldintza higieniko eta sanitarioak egokitzeko arau tekniko espezifikoak](#) onartzen baitira.

AGINDUA, 2019ko otsailaren 5ekoa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena eta Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira [okintza, pastelgintza eta iringintzako produktuen sektoreko establezimenduetako baldintza higieniko-sanitarioak egokitzeko arau tekniko espezifikoak](#).

Hemendik aurrera, ogi eta pastelgintza sektorean kantitate gutxi eraldatzen duten obradoreak beren

egoerara egokitutako betekizunak izango dituzte:

Zein produktu?

Ogi eta opil arruntak; Pastelgintza, konfiteria eta gozogintzako produktuak; Irinak (artoa, garia eta abarrak) eta Ogi arraspatua.

Zein bolumen?

- **Okintzako sektorean:** gehienez 1.250 kg irin astean.
- **Pastelgintzako sektorean:** lantegiko langileak 3 izango dira gehienez.

[Kontsultatu laburpen triptikoa -OGIA-](#)

Zein produktu?

Kontserba begetalak eta ozpinetakoak; Marmeladak eta menbrilloa ; Hozituak (germinatuak), Zukuak eta deribatuak; Jatorri begetaleko produktuak zuritu, zatitu, deshidratatu, hartzitu, lehortu eta/edo egostea eta Ortuari fresko higienizatuak (IV. Gamakoak).

Zein bolumen?

- **Barazkiak:** eraldatuaren 2.500 kg/urte baino txikiagoa.
- **Zukuak:** 5.000 litro/urte baino gutxiago.

[Kontsultatu laburpen triptikoa -Begetalak-](#)

Euskadiko sektore-agentetek, Foru-Aldundiek eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak eta Osasun Sailak elkarlanean osatu dituzte arauok, ELIKA Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioak koordinatuta eta aholkatuta.

Trichinelosia Europan 2017 urtean

- **Trikinelosia oso gaixotasun arraroa baina larria da Europar Batasunean (EB).**
- **2017an, 168 kasu egiaztatu ziren.**
- **Bulgarian, Kroazian eta Errumanian gertatu ziren baieztatutako kasuen % 73,8.**
- **Kontrolatu gabeko baldintzetan hazitako eta gutxi kozinatutako txerri-haragi eta ehizatutako basurde-haragia kontsumitzean harrapa daiteke gaixotasuna. Basurde-haragia da arriskutsuena gizakientzat.**

2017an, jakinarazpenen kopuruak % 50 egin du gora 2016ko kopuruarekin erkatuz gero. Hala ere, **igoera hori Bulgarian, Errumanian eta Kroazian jakinarazitako kasuen kopuruaren gorakadaren ondorio da**, aurreko urteetan oso kopuru gutxi jakinarazi baitzituzten.

Igoera hori gorabehera, 2012az geroztik joera beheranzkoa izan da.

Europako legediak (1375/2015 Legedia) eskatzen du **Trichinella** aztertzekeo **hildako txerri, basurde, basa-animalia, zaldi eta kontrolatu gabeko animalia-hazkuntzako beste kasu**

batzuetan. Ez da arau honetan sartzen autokontsumorako txerriak hiltzea, estatu kide bakoitzak arautzen baitu.

2017an, sei estatu kidek *Trichinella* kasuak jakinarazi dituzte, Bulgarian, Polonian, Kroazian, Errumanian eta Espainian taldekatutako txerri kutsatuetan.

Urtarrilean eta otsailean eman ohi dira kasu gehien, Gabonekin eta basurde-ehizaldiarekin bat etorritik.

Etxeko txerrietan egindako azterlanek adierazten dute alde aurreko kontaktua (zuzena edo zeharkakoa) egon dela nematodo horren gordailu diren basa-animaliekin.

Hedapen-ereduen arabera, ***T. spiralis* espeziea ez da hain ohikoa Europako iparraldean eta *T. britovi* espezieak kontzentrazio handiagoa izaten du Europako ekialdean.**

1375/2015 Legedia

Informazio interesgarria

ECDCk **beste gaixotasun batzuen zaintzari buruzko 2017ko urteko txostenak** ere argitaratu ditu 2019an, besteak beste:

- [Erresistentzia antimikrobianoa](#)
- [Rift haraneko sukarra](#)

[Beste txosten batzuk](#)

Salmonellaren kontrola oiloetan eta osasun publikoan duen eragina

Salmonelosiak da Europar Batasunean (EB) elikagaien bidez transmititzen diren gaixotasunetan bigarrena. Lehenengoa campilobakteriosia da. 2017an, estatu kideek gizakietan 91.662 salmonelosi-kasu jakinarazi zituzten.

Hainbat urtetan kopuruak behera egin bazuen ere, azken bost urteotan mantendu egin da salmonelosi kasuen kopurua. 2017an kopuruak zertxobait behera egin bazuen ere (94.425 kasuetatik 91.662 kasuetara), **2008an hasi zen beherazko joera geratu egin da.** Datu horiek eta beste batzuk txosten honetan azter daitezke:

Hain zuzen ere gelditze hori dela eta, EFSAK zientzia-iritzi bat argitaratu du. Horren arabera, abeletxeetan oilo erruleetan **Salmonellarako helburu zorrotzagoak jartzeak gizakien artean jatorri hori duten kasuak murrizten lagunduko luke.** Honako hauek dira helburu horietako batzuk:

- Gaur egun, EBko herrialdeek % 2ra murriztu behar dute zenbait *Salmonella*-motak

kutsatutako **oilo erruleen** kopurua. EFSAk uste du xede hori **% 1era murriztuz gero, gizakietan % 50era murriztuko liratekeela salmonelosien-kasuak.**

- **Oilo ugaltzaileei** dagokienez, gaur egun % 1eko xedea dago ezarrita giza osasunerako garrantzitsuak diren bost *Salmonella* motatarako (*Salmonella enteritidis*, *Salmonella typhimurium*, *Salmonella infantis*, *Salmonella virchow* eta *Salmonella hadar*). **EFSAk gomendatzen du xedea mantentzea hiru motatarako (*Salmonella enteritidis*, *Salmonella typhimurium* eta *Salmonella infantis*) eta beste biak (*Salmonella virchow* eta *Salmonella hadar*) ordezte**a gaur egun giza osasunerako garrantzitsuagoak diren beste mota batzuekin.
- Ostatu-sistemei dagokienez, ondorioztatzen da ***Salmonellaren* presentzia txikiagoa dela ostatu-sistema alternatiboetan hazitako oiloetan kaiola-sistemetan hazten direnetan baino**. Hala ere, arrazoiak ezin dira erabat azaldu, ez baitago zientzia-ebidentziarik.